

karta soziala mugimendu
feministatik eraikitzen

FEMINISMOA GURE ALTERNATIBA

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta eraldaketa sozioekonomikorako tresna bat da; aliantza sozio-sindikal herritar zabal batetik abiatuta, Hego Euskal Herriko erakundeei interpelatu eta exijitu egiten die erabakiak har ditzaten, egungo desberdintasun sozial egoera konpontzearen.

Hainbat antolakunde, mugimendu sozial eta sindikatutako feminista ugarik hartu dugu parte prozesu honetan, eta adierazi dugu Kartaren ardatz nagusietako bat feminismoa izan beharko dela emakume eta gizonen arteko zinezko berdintasunaren aitortzarekin batera.

Prozesu ireki horretan izan gara, eta bagaude ere oraindik. Esaterako, iazko urtarrilaren 11n Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxak deituta, Bilbon asanblada feminista arrakastatsu bat antolatu genuen eta han Kartaren printzipio eta alternatibetarako ekarpen asko bildu ziren. Era berean, urte bereko otsailaren 1ean 20 nazionalitate desberdinetako emakume migratzaileekin egindako tailer-topaketan beraien ekarpenak jasotzeko aukera egon zen. Ariketa kolektibo honek gure presentzia eta ekarpenak islatu zituen Kartaren esparru eta ardatz guztiak eraikitzerako orduan.

Feministok baditugu proposamenak aurrekontu-politikan; arlo fiskalean; enpleguaren eta sozialki ezinbestekoak diren lanen birbanaketan; ingurumen- eta kultura-politikan; aniztasunen aitortza eta errespetuan; biolentziarik gabeko bizitza baten defentsan; sexu- zein ugaltze-eskubideetan; krisiaren eragin negatiboa genero ikuspegitik aztertzerakoan; zaintzen aitortza eta berrantolaketa sozialean.., baita bizitzaren iraunkortasuna eta bizitza onaren aldeko apustuari dagokionez ere, besteak beste. Gure agenda ez da "emakumeen kontu"etara mugatzen; osotasunaren zati bat

gara, eta ez da txorakeria gogoratzea biztanleriaren erdia ere bagarela.

Halaber, datorren martxoaren 7an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, berriro bilduko gara, norabide horretan parte hartzen eta aurrera egiten jarraitzeko.

Bestalde, ohartzen gara arrisku bat badagoela, alegia, emakumeen beharrez eta aldarrikapenak errebindikazio orokorren multzoan baztertuta geratzea. Premiazkoa eta garrantzitsua zer den, bien arteko hautua, hor dago beti, eta horri dagokionez adi egon behar gara errebindikazioen bat egiteak eta imajinario sozial bateratuak begirada feminista ere aintzat har dezan.

Aliantza sozio sindikalaren abiapuntu hainbat errealitate eta ikuspuntu dira, zeinek agerian uzten dituzten eguneroko bizitzan aurrez aurre topatzen ditugun zapalkuntza desberdinak: klasea, arraza, adina, kultura, hautu sexuala, jatorri geografikoa edota egoera administratiboa, aniztasun funtzionala.., eta, noski, sexu-genero sistema bera ere, dominazio ardatz desberdinak zeharkatzen dituena.

Ikusten dugunez, agerikoak dira arrazoiak eta bat egiteko beharra organizazio, mugimendu sozial eta sindikatu desberdinentzat ibilbide kolektibo honetan sortuko diren zailtasun guztiari aurre eginez.

Aurtengo martxoaren 8 honetan, feministok aldarrikatzen dugu beste eredu ekonomiko eta sozial baten eraketan emakumeok nahitaezko subjektu politikoak garela eta Euskal Herriko Karta Sozialaren eraikuntzan feminismoa ezinbestekoa dela. Hau dela eta, Martxoaren 14ean emakumeok ere kaleak okupatuko ditugu aldaketa feminista ez bada ez delako benetako aldaketa izango.



asanblada feminista,
Emakumeon Mundu Martxak
deituta

MARTXOAK 7

BILBO:
Edificio la Bolsa
11:00

manifestazioak
MARTXOAK 8

Euskal Herriko hiriburuetako
koordinadora feministen deialdiak
Emakumeon Mundu Martxaren
I.Nazioarteko ekimenaren hasiera

m14

manifestazioak
MARTXOAK 14

BILBO: 17:00 Sdo. Corazón
IRUÑA: 17:30 Parque Antoniutti

construyendo la carta social desde los movimientos feministas

EL FEMINISMO NUESTRA ALTERNATIVA

La Carta de los Derechos Sociales de Euskal Herria es un instrumento para la transformación socio-económica que, partiendo de una amplia alianza socio-sindical popular, interpela y exige a las instituciones de Hego Euskal Herria la aplicación de una serie de medidas que reviertan la actual situación de desigualdad social existente.

Numerosas feministas, que somos parte de distintas organizaciones, movimientos sociales y sindicatos, hemos participado en este proceso, advirtiendo la necesidad de que el feminismo y el reconocimiento de la igualdad real entre mujeres y hombres sea un eje vertebrador de la Carta.

Hemos estado y seguimos estando presentes en este proceso abierto. Así, el 11 de enero del año pasado, desde la Marcha Mundial de las Mujeres organizamos una exitosa asamblea feminista en Bilbao, de la cual se extrajeron numerosas aportaciones a los principios y alternativas de la Carta. Asimismo, el 1 de febrero de ese mismo año, un taller-encuentro con mujeres migradas de más de 20 nacionalidades distintas permitió recoger también sus aportaciones. Este ejercicio colectivo plasmó nuestra presencia y contribución en la construcción de alternativas en todos los ámbitos y ejes de la Carta.

Las feministas tenemos propuestas en las políticas presupuestarias; el ámbito fiscal; la redistribución del empleo y los trabajos socialmente necesarios; las políticas ambientales y culturales; el reconocimiento y respeto de las diversidades; la defensa de una vida libre de violencias; los derechos sexuales y reproductivos; el impacto negativo de la crisis según la perspectiva de género; el reconocimiento y reorganización social de los cuidados...así como en la firme apuesta por la sostenibilidad de la vida y el buen vivir, entre otras. Nuestra agenda no se reduce a "cuestiones de mujeres"; somos parte

del todo, además de recordar la obviedad de que somos la mitad de la población.

En esta línea, este próximo 7 de marzo, dentro del contexto del Día Internacional de las Mujeres, volveremos a reunirnos, para seguir aportando y avanzando en esta dirección.

De la misma forma, advertimos el peligro recurrente de que se arrinconen las necesidades y reivindicaciones de las mujeres en el cajón de las reivindicaciones generales. La encrucijada entre lo urgente y lo importante sigue estando presente, y ahí tenemos que estar atentas para que la fusión de reivindicaciones y la creación del imaginario social conjunto integre la mirada feminista.

La alianza socio-sindical parte de distintas realidades y de miradas que ponen de manifiesto múltiples opresiones a las que nos enfrentamos en el día a día: clase, raza, edad, cultura, orientación sexual, procedencia geográfica y/o situación administrativa, diversidad funcional,... y, por supuesto, el sistema sexo-género, que atraviesa los distintos ejes de dominación.

Como vemos, son evidentes las razones y la necesidad de aliarnos entre distintas organizaciones, movimientos sociales y sindicatos, a pesar de las dificultades que surjan en este caminar colectivo.

Este 8 de marzo, las feministas reivindicamos que, en la creación de otro modelo social y económico, las mujeres somos sujetos políticos imprescindibles y que el feminismo es imprescindible en la construcción de la Carta de los Derechos Sociales de Euskal Herria. Por ello, el 14 de Marzo, las mujeres también ocuparemos las calles, porque el cambio sera feminista o de lo contrario no supondrá un verdadero cambio.



euskal herriko
**eskubide
sozialen
karta** | carta de
los derechos
sociales

asamblea feminista
convocada
por la Marcha Mundial de Mujeres
7 de MARZO
BILBO:
Edificio la Bolsa
11:00

manifestaciones
8 de MARZO
Convocatorias de las Coordinadoras
feministas de las capitales
de Euskal Herria
Comienzo de la IVª Acción Internacional
de la Marcha Mundial de Mujeres.

m14
manifestaciones
14 de MARZO
BILBO: 17:00 Sdo. Corazón
IRUÑA: 17:30 Parque Antoniutti